



Euskadiko negoziatio kolektiboaren balantzea 2009



CRL  **LHK**

lan harremanen kontseilua consejo de relaciones laborales

Lan Harremanen Kontseilua

Euskadiko negoziazio kolektiboaren balantzea 2009an

2010eko martxoa


Sarrera

Txosten honetan, 2009. urterako burutu den negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu, halakotzat ulertuz EAEn eragina duten eta urte horretarako (2009) indarraldi zehatza duten hitzarmen kolektiboen multzoa.

Azterlan honetan ez ditugu kontuan izan funtzionarioen lan-baldintzen akordioak ez eta estatutuz kanpoko itunak ere.

Lehendabizi, negoziazio kolektiboaren egituraren, hau da, EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboen talde antolatuaren funtsezko ezaugarriak azaletik deskribatuko ditugu, eta hori abiapuntutzat hartuz, 2009an eragina izan duen negoziazio kolektiboaren bilakaera aztertuko dugu. Deskribapen hori eraginpeko langileen terminotan egiten dugu.

Negoizazio kolektiboaren egitura



Horri lotuta, aipatu behar dugu bi urtero Lan Harremanen Kontseiluak negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa orokorrean eguneratzen duela, hau da, EAEn aplikatzen diren hitzarmenen multzoa deskribatzen du eta horien eraginpean dauden pertsonen kopurua adierazten du, eta azken eguneratzea 2008koa da eta azterlan hori berriro 2010ean egitea aurreikusita dago. Era berean, 2009an erregistratu diren hitzarmenek ematen duten informazioaren arabera datuetan aldaketa txikiak egin ditugu.

Horrela, eskura dauden azken datuen arabera EAEko negoziazio kolektiboak 643.437 langilerengan du eragina.

- Negoizazio kolektibo horren zati handiena sektore pribatukoa da (%97).

- EAerako negoziazio kolektiboaren barnean hartzen dira, batetik, EAEn negoziatutako eta erregistratutako hitzarmen kolektiboak, eta, bestetik, estatu-eremuk hitzarmenak, gure autonomia erkidegoan hitzarmen espezifikorik ez duten sektoreei, edo EAEn lantokiak dituzten enpresei dagozkienak. Nolanahi ere, negoziazio kolektiboaren zati handiena EAEn egiten da, zehazki %79, hitzarmenen eraginpean dauden pertsonak hartuz gero.
- Era berean, gehienak sektore-eremuk hitzarmenekin erregulatuta daude (%81). Hala eta guztiz ere, lurralde-eremu bakoitzean negoziazio kolektibo sektorialaren eta enpresarialaren pisua desberdina da. Hala, Gipuzkoan negoziazio sektoriala nagusitzen da argi eta garbi (%89), eta Araban, aldiz, enpresako negoziazioak garrantzi handia du (%33).

Beheko koadroan, EAEn aplikatzen diren hitzarmen guztiei buruzko informazio guztia jaso da.

EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboak eta hitzarmen horien eraginpean dauden pertsonak

	Sektorea		Enpresa		Guztira	
	Hitz.	Lang.	Hitz.	Lang.	Hitz.	Lang.
Araba	21	49.128	158	23.848	179	72.976
Bizkaia	48	208.761	306	39.594	354	248.355
Gipuzkoa	44	141.604	103	17.665	147	159.269
Lurralde artekoak	8	20.697	27	7.773	35	28.470
EAEn erregistratutakoak	121	420.190	594	88.880	715	509.070
Estatu-eremua	107	100.985	233	33.382	340	134.367
GUZTIRA	228	521.175	827	122.262	1.055	643.437

Hitz.: hitzarmenak; Lang.: eraginpeko langileak


EAEko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus LHKren web-orria: http://www.crl-lhk.org/e_estructura.htm

2009ko negoziazio kolektiboaren bilakaera

2009/01/01eko datuak

2009/12/31ko datuak

EAE



- 2009an egiteke dauden hitzarmenen eraginpeko langileak
- 2009an erregistratutako hitzarmenen eraginpeko langileak
- 2009a baino lehen erregistratu ziren eta urte horretan indarrean dauden hitzarmenen eraginpeko langileak.

2009. urterako negoziazioaren bilakaera

Aurreko orrian jarri dugun grafikoan ikus daitekeen bezala, 2009an langile guztien %58,2 eraginpean dituzten hitzarmen kolektiboak berritu egin behar ziren. Ehuneko hori 2008. urtekoa (%50,8) baino handiagoa da, baina aurreko urteetako baino txikiagoa (%69,4 zen 2007an eta %65,6 zen 2006an) batez ere lehendik egindako hainbat sektore-hitzarmen 2009an indarrean zeudelako eta hitzarmen horiek langile kopuru handia barne hartzen dutelako, guztira 211.582, eta langile kopuruaren arabera garrantzitsuenak dira Gipuzkoako siderometalurgia 53.303 langilerekin, Arabako eta Gipuzkoako eraikuntzakoak 21.175 langilerekin eta Estatuko kimikakoa 12.365 langilerekin.

Era berean, negoziazio-prozesuak aurten ere zailak izan dira, eta horren adierazle dugu 2009ko hamabi hilabeteetan soilik langileen %15,9rako akordioak erregistratu direla, hau da, negoziatu behar zenaren heren bat baino gutxiago. Dena dela, kontuan izan behar dugu zenbait hitzarmen, dagoeneko sinatu direnak edo sinatzeko zorian daudenak, seguru aski 2010eko lehen hilabeteetan erregistratuko direla.


Horrela, 2009. urtea amaitu da eta langileen %42,3 beren hitzarmen kolektiboa berritzeko zain daude. Hala eta guztiz ere, indarrean dauden eraginkortasun mugatuko hitzarmenak (%13) eta administrazio publikoetako lan-kontratudun langileen hitzarmenak -horien baldintza ekonomikoak mahai orokorretan edo protokolutan ezartzen dira- barne hartzen baditugu, ehuneko hori %14 murrizten da gutxi gorabehera.

2009rako negoziazio kolektiboaren bilakaera eremu funtzionalen arabera


2009/01/01eko datuak

2009/12/31ko datuak

Enpresa



Sektorea



- 2009an egiteke dauden hitzarmenen eraginpeko langileak
- 2009an erregistratutako hitzarmenen eraginpeko langileak
- 2009a baino lehen erregistratu ziren eta urte horretan indarrean dauden hitzarmenen eraginpeko langileak.

2009/12/31 arte erregistratutako eta eremu funtzionalen arabera (enpresako eta sektoreko hitzarmenak) banakatutako hitzarmenak hartuz gero, ikus dezakegu %3 gehiago negoziatu direla (langileen kopuruaren arabera hartuta) enpresako hitzarmenetan sektoreko hitzarmenetan baino. Beste alde batetik, 2009. urtea hastean enpresako hitzarmenen eraginpeko langileen %6 gehiago ziren sektoreko

hitzaermenaren eraginpekoak baino. Hala, aurreko grafikoan ikus daitekeenez, sektore-hitzaermenaren eraginpekoen %44,1ek ez du hitzaerma berritu urtea amaitutakoan; enpresa eremuan, berriz, ehunekoak %35,1 izan da. Ere mu sektorialean, nabarmentzekoa da hitzaermen askok lau urte baino gehiago daramatzatela berritu gabe. EAEn erregistratzen diren 121 hitzaermen sektorialetatik 24 adosteko zain daude 2005a baino lehenagotik. Hitzaermen horiek 16.893 langile dituzte eraginpean, hau da, EAEn erregistratzen den negoziazio kolektibo sektorialearen eraginpeko langileen guztizkoaren %3,2.

2009/12/31 arte gordailatu ziren eraginkortasun mugatuko zazpi sektore-hitzaermen, 2009rako indarraldi zehatza zutenak (Arabako eta Bizkaiko metala, Gipuzkoako eta Bizkaiko farmazia-bulegoak, Gipuzkoako okindegiak eta Bizkaiko anbulantziak) eta hainbat enpresako estatutuz kanpoko itun, horien artean nabarmenduz Arabako Mercedes, Basauriko Sidenor eta Bizkaiko Alzairu-fabrika Trinkoa. Hitzaermen eta estatutuz kanpoko itun horiek guztiek 86.000 lagun inguru barne hartzen dituzte, hau da, kopuru osoarenen %13 gutxi gorabehera.



Horretaz gain, funtzionarioen eremuan, aurrekontuei lotutako bestelako erabaki eta akordioak direla-eta, 85.000 pertsona baino gehiagoren lan-baldintzak ere berrituta daude.

Negoiziak kolektiboaren bilakaera lurralde-eremuen arabera aztertzen bada, ondoren txertatzen dugun grafikoan deskribatzen den egoera ikus dezakegu.




2009rako negoziazio kolektiboaren bilakaera lurralde-eremuen arabera

2009/01/01eko datuak




2009/12/31ko datuak






Bizkaia






Gipuzkoa



EAEko lurralde artekoa



Estatu-eremukoa



- 2009an egiteke dauden hitzarmenen eraginpeko langileak
- 2009an erregistratutako hitzarmenen eraginpeko langileak
- 2009a baino lehen erregistratu ziren eta urte horretan indarrean dauden hitzarmenen eraginpeko langileak.

Aurreko grafikoari begiratu gero, ikus daiteke 2009. urtean eta lurralde arteko eremuan beren hitzarmenak berri dituzten langileen bolumena garrantzitsua dela, %61,2. Horren arrazoia da irakaskuntza pribatuaren eta ikastolen hitzarmen sektorialetan lortutako akordioa. Bizkaian 2009. urtea amaitu da langileen %65,7k hitzarmena berri gabe, eta Araban %54,8k. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da bi lurralde historiko horietan industria siderometalurgikoan 2009an indarrean dauden eraginkortasun mugatuko itunak daudela, 59.000 eta 18.000 langile baino gehiago, hurrenez hurren, eraginpean hartuz. Gipuzkoak 2009. urtea hasi zuen berritzeke zegoen hitzarmena zuten pertsonen portzentaje txikiagoarekin (%27,8) eta urtearen amaieran berri gabe geratu diren hitzarmenek soilik langileen %17,7 hartzen dituzte eraginpean. Hala eta guztiz ere, oro ar, hitzarmen horiek urte asko daramatzate berri gabe. Azkenik, ikus daiteke EAEn eragina duten estatu-eremuko hitzarmen kolektiboetan gauzatu gabe dagoen negoziazio kolektiboa %26,4koa dela eraginpeko pertsonen dagokienez.

Ondoriozko egoera 2009. urtea amaitutakoan


Laburbilduz, 2009. urtea amaitutakoan, eskuragarri ditugun azken datuen arabera (2009/12/31ra arte erregistratutako hitzarmenak), berritutako hitzarmenak 584 ziren, eta 370.957 pertsona hartzen zituzten eraginpean. Pertsona horien %79 sektoreko hitzarmenen babesean dago, eta gainerako %21a, berriz, enpresako hitzarmenen babesean. Ekitaldia amaitutakoan, 471 hitzarmen geratzen ziren berritzeko, 272.480 langile eraginpean hartuta.

Eremu sektorialeko negoziazio kolektiboak 2008an baino emaitza txarragoak lortzen ditu, 2008an eta 2009an negoziatutakoaren arteko aldea %1 baino gehixeago baino ez bada ere. Izan ere, abiapuntuan negoziaturiko hitzarmenak ia %12 gutxiago ziren (langileen arabera zenbatuta). Arabako eta Bizkaiko siderometalurgiaren eragin mugatuko hitzarmenen egoerak, berriz, oso baldintzaturik uzten du egoera orokorra. Beste zenbait sektore garrantzitsutan (Bizkaiko bulegoetan, Bizkaiko ostalaritzan, 2003tik berri ez den Zuraren industrian etab.) gertatu den adostasunik ezak ere emaitza txarragoa izatea ekarri dute..

Enpresa-eremuko egoeraren balorazio zorrotzago batek, erregistratu gabeko itunek eta akordioek harengan duten eragina sakonago aztertzea eskatuko luke. Ildo horretan, hainbat enpresa handitan negoziazio kolektiboak estatutuz kanpoko itunen bitartez formalizatu dituzte, adibidez Mercedes-ek Araban, Altzairu-fabrika Trinkoak Bizkaian eta Sidenor-ek Basaurin. Dena dela, enpresetan lortzen diren itun guztiei buruzko informaziorik ez dugu, eta horregatik une honetan ezin dugu azterketa hori egin behar adinako bermeekin. Itun horiek kontuan izan gabe, urtea amaitzerakoan enpresa-hitzarmenak sinatu gabe zituzten pertsonen portzentajea 35,1ekoa zen, aurreko urtekoa baino handiagoa (%30,7).

2009rako negoziazioaren emaitzak Soldata-igoerak

Osorik hartuta, 2009rako itundutako batez besteko igoera %2,60 da. Gure Erkidegoan erregistratutako hitzarmenen soldata %2,75 igo da, eta EAEn eragina duten estatu-eremuko hitzarmenen soldata, berriz, %2,20. Era berean, enpresako hitzarmenetan soldata-igoera %2,56 izan da, eta sektoreko hitzarmenetan %2,61, hurrengo grafikoan adierazten den bezala. Horri dagokionez, honako hau hartu behar da kontuan: sektoreko hitzarmenetan hitzartutako ordainsari-igoera enpresako hitzarmenetan hitzartutakoa baino handiagoa bada ere, sektoreko hitzarmenetan itundutako igoerak sektoreko gutxieneko ordainsarien gainean (taulak) ezartzen dira, eta, enpresakoak, oro har, ordainsari handiagoen gainean.



Oro har, 2009rako adostutako soldata-igoeren beheranzko bilakaera garrantzitsua ikus daiteke 2008rako adostutakoekin (%4,44), alderatuta, KPI ohi ez bezain baxua izan baita, batetik, (2009an %0,8 Estatuan eta %1 EAEn, eita aurreko urtean ere %1,4 eta %1,9, hurrenez hurren), eta bestetik, ekonomia eta enpresa guztiak jasaten ari diren egoera ekonomikoa oso zaila delako.

2008rako eta 2009rako adostutako soldata-igoerak

	Soldata-igoera, soldata berrikusteko klausularik gabe		Soldata berrikusteko klausulen efektuak		Soldata-igoera guztira	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Araba	4,12	2,89	-0,01	0,01	4,11	2,90
Bizkaia	5,01	2,89	-0,01	-0,01	5,00	2,88
Gipuzkoa	5,25	2,45	0,00	0,00	5,25	2,45
Lurralde artekoak	4,43	3,67	0,00	0,00	4,43	3,67
EAEn erregistratutakoak	4,98	2,74	-0,01	0,01	4,97	2,75
Estatu-eremua	2,82	2,25	-0,08	-0,05	2,74	2,20
EAEn guztira	4,46	2,61	-0,02	-0,01	4,44	2,60

Berrikuspeneko edo soldata-bermeko klausulei dagozkien doikuntzei lotuta, 2009ko KPIren bilakaeraren ondorioz, ehuneko ehunen bateko (-0,01) efektu negatiboa izan dute batez beste, 2009ko abenduan inflazioa %0,8 izan delako, hasiera batean aurreikusitakoaren (%2) azpitik. 2009rako berrikusteko hitzarmenen %30ak (hitzarmen horiek araututako langileen %28 eraginpean hartuz) berrikusteko klausula badute ere, klausula horrek beheranzko berrikuspenak oso gutxitan barne hartzen ditu

espresuki. Nolanahi ere, arlo horri dagokionez esan beharra dago alde handiak nabari direla lurraldearen arabera. Adibidez Gipuzkoan, batez ere aurreko urteko inflazioa kontuan izanik negoziatzen dutenez, berrikusteko klausulek ez dute ia inolako eraginik azken ekitaldia amaitzerakoan, eta estatu-eremuan kontrakoa gertatzen da.

Lanaldia

Berritzen ari diren hitzarmenek lanaldia murrizteko azken urteetako joera geldiarazi egin dute. Horrela, ikus daiteke lanaldia murrizten duten hitzarmenen portzentajea, esanguratsua izan arren (%22,9), aurreko urteetako baino txikiagoa dela (izan ere, 2008an indarrean zeuden hitzarmenetan %25,8 izan zen).

Lanaldia murriztea adostu zuten hitzarmenak

	2008ko eta 2009ko lanaldia murriztea adostu zuten hitzarmenen portzentajea	
	2008	2009
Araba	36,9	26,4
Bizkaia	28,6	25,7
Gipuzkoa	35,8	34,6
Lurralde artekoak	42,1	33,3
EAEn erregistratutakoak	32,8	28,3
Estatu-eremua	12,8	13,8
EAEn guztira	25,8	22,9

Eta era berean ikus daiteke adostutako lanaldi-murrizketak beheranzko joera duela. Zehazki, 2009an murrizketa urteko 1,2 orduko batez besteko haztatua da, bai hitzarmen guztiak kontuan hartuta eta bai EAEn erregistratutako hitzarmenak bakarrik kontuan hartzen badira ere.

Adostutako lanaldi-murrizketa (orduak/urte)

	2005/2004	2006/2005	2007/2006	2008/2007	2009/2008
Araba	4,5	4,2	3,9	1,6	1,1
Bizkaia	7,1	3,2	3,1	1,5	0,7
Gipuzkoa	7,1	3,4	1,1	1,6	1,6
Lurralde artekoak	1,0	7,1	3,3	9,7(*)	1,5
EAEn erregistratutakoak	6,1	3,6	2,5	1,8	1,2
Estatu-eremua	2,2	1,2	1,1	0,6	0,9
EAEn guztira	5,0	2,9	2,2	1,5	1,2

(*) Eskola-jangelen eta garraio-monitoreen kolektiboek murrizketa esanguratsuak izan dituzte, sektore publikoarekin parekatu direlako 35 ordutan.

Berritutako hitzarmenetan itundutako lanaldia edozein izanik ere, benetan aplikatzen den lanaldia hitzarmen kolektibo guztien ondoriozkoa da, hau da, berrituena eta berritu gabeena. Azken horietan, berritu gabeetan, kontuan hartzen dugun lanaldia negoziatutako litzatekeen azkena da.


Horrela, emaitza zera izango litzateke, 2009an aplikatzekoa den lanaldia 2008koa baino ordubete laburragoa dela; eta EAEn erregistratutako hitzarmenetan, berriz, berdina da. Ondoren aurkezten dugun grafikoan, EAEn eragina duten hitzarmenetan aplikatzekoa den lanaldia adierazten da, lehendik aipatutako irizpideen arabera eta eremu funtzionalen eta lurralde-eremuen arabera banakatuak. Eta egiazta daitekeen bezala, ia lurralde-eremu guztietan lanaldi aplikagarria ordu batez murrizten da edo berdin geratzen da. Maila funtzionalean ordubete murrizten da sektoreko hitzarmenen barruan, eta enpresakoetan lanaldi aplikagarriak berdin jarraitzen du.



EAEko hitzarmen kolektiboetan aplikatzen den lanaldia



EAEen erregistratutako hitzarmenetan aplikatzen den lanaldia



Lan-gatazka

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuen arabera, 2009. urtean EAEen 273 greba erregistratu dira; 27.080 parte-hartzaile izan dira greba horietan, eta guztira, jardun gabeko lanaldiak 126.094 izan dira. Kopuru horietatik zera ondorioztatzen da: 2008. urtearekin alderatuta greben eta jardun gabeko lanaldien kopurua (%17,7 eta %70,9 hurrenez hurren) handitu bada ere, aldi berean parte-hartzaileen kopurua asko murriztu da (%-34,20). Oro har, grebak gertatu diren enpresetako langileen %48 egon da eraginpean.

Grebak eragiten dituzten faktoreen artean, negoziazio kolektiboari buruzko ezadostasunak dira beste guztien gainetik nabarmentzen direnak, baina grebak sorrarazi dituzten eta "beste arrazoi batzuk" taldean sartuta dauden arrazoiak nabarmen handitu dira, batez ere 2009. urte osoan bizi izandako egoera ekonomiko larriari lotutakoak, enplegu-erregulazioko eta kaleratzeko espedienteen kopuru handiagoa ekarri baitu. 2009. urtean, greben %37, parte-hartzaileen %53 eta jardunik gabeko lanaldien %60 hitzarmen kolektiboetan akordiorik ezagatik izan dira; horrek esan nahi du negoziazio kolektiboak iaz baino eragin txikiagoa izan duela greben eragiletzat.

Lan-greba motibazioaren arabera

	Greba kopurua			Parte-hartzaileak			Lanik egin gabeko egunak		
	2008	2009	Ald. %	2008	2009	Ald. %	2008	2009	Ald. %
Negoiazio kolektiboa	111	100	%-9,9	23.659	14.376	%-39,2	48.031	75.163	%56,5
Beste arrazoi batzuk	121	173	%43,0	17.524	12.704	%-27,5	25.738	50.931	%97,9
Guztira	232	273	%17,7	41.183	27.080	%-34,2	73.769	126.094	%70,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Negoiazio kolektiboaren aurreikuspena 2010erako

2010. urtea hasterakoan, dagoeneko berrituta dauden hitzarmenek (urte anitzeko indarraldia dutenek) negoziazio kolektiboaren babesean dauden pertsonen %23,3 hartzen dituzte eraginpean. Datu horiek erakusten dutenez, beraz, urtearen hasierako abiapuntua 2008koa baino konplexuagoa da (aurreko urtean langileen %41,8rentzat hitzarmenak berrituta zeuden). Honenbestez, urtea hasterakoan hitzarmenen %77 berritzeke daude, baina portzentaje honek ez du eragin berdina eremu guztietan. 2009an eta 2010ean indarrean zeuden hitzarmenen arteko diferentzia handi horren arrazoi nagusia da Gipuzkoan 2009. urtea amaitzerakoan sektoreko hamalau hitzarmenen indarraldia amaitu dela, eta ia 105.000 langile dituztela eraginpean.

Hala, ondoko grafikoan ikus dezakegunez, 2010. urtea hasterakoan sektore-eremuan hitzarmen kolektiboak berritzeke dituzte lagunen %81,3k, eta enpresako hitzarmenetan portzentaje hori 57,0 da. Azpimarratu beharra dago soilik EAEn garatzen den sektoreko negoziazioari dagokionez portzentajea pixka bat handitzen dela eta 87,2ra iristen dela. 2010. urterako indarrean dauden estatutuz kanpoko itunak deskontatuz gero (Gipuzkoako farmazia-bulegoak, Arabako eta Bizkaiko industria siderometalurgikoa, Gipuzkoako okindegiak eta Bizkaiko anbulantziak), berritu gabe dagoen portzentaje hori 68,1era jaitsiko litzateke.

Lurralde-eremuei dagokienez, ikus daiteke lurralde arteko eremuko hitzarmenen artean hitzarmenak berritzeke dituzten langileen portzentajea 85,8ra igotzen dela. Araban %74,9 da, eta Bizkaian %81,6. Bi lurralde horietan, 2010ean indarrean dauden siderometalurgiaren eraginkortasun mugatuko hitzarmenak kontuan izan behar ditugu. Gipuzkoan eta estatu-eremuan egiteke dauden hitzarmenen portzentajeak 85,8 eta 55,6 dira, hurrenez hurren. Gipuzkoan sinatzeke daudenen artean honako hitzarmen sektorial hauek daude: siderometalurgia, metalaren merkataritza, eraikuntza, pertsona helduen egoitzak edo garbikuntza, guztira 100.000 lagun baino gehiago eraginpean hartuz. Estatu-eremukoen artean, sinatu gabe daude segurtasun pribatuaren, kimikaren eta publizitate-enpresen hitzarmen sektorialak eta beste batzuk, guztira 30.000 langile baino gehiago eraginpean hartuz.

2010erako indarrean dauden hitzarmenetan, azpimarratzekoa da adostu den batez besteko soldata-igoera haztatua %1,92koa dela. Adierazi beharra dago aurreko urteetan, hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako KPIren arabera soldata-igoera aipatzen zenean, hori %2ra parekatzea zela hartutako irizpidea. 2010erako orain arteko erabilitako irizpidea honako hau izango da: zifra jakin bat adierazi ezean, aurreikusitako KPI indizea ezezaguntzat ematen da.

	2010. urterako soldata-igoerak (*)
Araba	2,05
Bizkaia	2,49
Gipuzkoa	1,87
Lurralde artekoak	1,31
EAEn erregistratutakoak	2,07
Estatu-eremua	1,56
EAEn guztira	1,92

(*) 2009ko abenduaren 31 arte erregistratutako eta 2010ean indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan

Negoiazio kolektiboaren aurreikuspena 2010erako



■ 2010ean egiteke dauden hitzarmenen eraginpeko langileak

■ 2010a baino lehen erregistratu ziren eta urte horretan indarrean dauden hitzarmen eraginpeko langileak.